

4/2019 AKTA
NAFARROAKO UDALERRIEN ETA KONTZEJEN FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
MAIATZAREN 14an EGINDAKO BILKURA

BERTARATUAK:

PRESIDENTEA:

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea.*

1. PRESIDENTEORDEA:

Raquel Garbayo Berdonces and., *Cintruénigoko alkatea.*

2. PRESIDENTEORDEA:

Jesús M^a Rodríguez Gómez jn., *Ribaforadako alkatea.*

KIDEAK:

Javier Albizu Sanz jn., *Artazuko alkatea.*

D. Ángel Obanos Galar, *Artikako Kontzejuko burua.*

Ezequiel Martín Muxika jn., *Atezko alkatea.*

David Alvarez Yanguas jn., *Castejónko alkatea.*

Nieves Recalde Zaratiegui and., *Etxagueko Kontzejuko burua.*

Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesibarko alkatea.*

Koldo Leoz Garciandia jn., *Lizarrako alkatea.*

María Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea.*

Ángel Navallas Echarte jn., *Zangozako alkatea.*

Mario Fabo Calero jn., *Martzillako alkatea.*

Aritz Romeo jn., *Iruñeko zinegotzia.*

Arturo Golaracena Asa jn., *Tafallako alkatea.*

Eneko Larrarte Huguet jn., *Tuterako alkatea.*

Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko Kontzejuko burua.*

Ezin etorria adierazi dute:

Unai Laco Goñi jn., *Agoizko alkatea.*

Karmele Marañón Chasco and., *Arbizuko alkatea.*

Ur Algeró Chivite jn., *Aresoko alkatea.*

Luis Alfonso Potestad Tellechea jn., *Aurizko alkatea.*

Yolanda González García and., *Vianako alkatea.*

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hemeretziko maiatzaren hamalauan, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Lodosako kultur etxean (Ribera etorbidea, 1), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDIA

- 1º.- Aurreko bilkuraren akta onestea.
- 2º.- Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.
- 3º.- Larrialdiko laguntza.
- 4º.- NUKFren ildo estrategikoak
- 5º.- Eskubide Sozialetako Departamentuaren, NUPen eta NUKFren arteko hitzarmena ikastaro bat egiteko.
- 6º.- Legegintzaldiaren balantzea.
- 7º.- Presidentearen informazioa.
- 8º.- Galde-eskeak.

1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren akta onestea

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, presidentek galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharririk duen haren inguruan.

Bilkurara joandakoek

ERABAKI DA:

2019ko apirilaren 9an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **Toki Araubideko Foru Batzordea. (2019/04/29).** Txosten egin zitzaion foru aginduaren proiektu bati, zeinak helburu baitzuen zerrenda bat eratzea idazkaritza lanpostuak aldi baterako betetzeko, baita Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzentzaileari eta Nafarroako Eskola Mapa aldatzeko Foru Dekretuaren proiektuari ere.
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua. (2019/04/29).** Erreklamazioak ebatzi ziren informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ukatzeari buruz.
- **Lurralde Mugaketako Batzordea. (2019/04/30).** Caparrosoko eta Martzillako udal mugarteak mugatzeko espedientearen berri eman zen.
- **Nafarroako Taxien Kontseilua. (2019/05/07).** Jakinarazi zen zerbitzu baten proba pilotua egin gogo dela Iruñeko espetxerako eta taxistak ez zeudela oso pozik Mankomunitatearekin halako zerbitzu bat hitzartzearekin. Orobat jakinarazi zen aireporturako zerbitzu pilotuak defizita duela emaitzetan eta lizitazio berriak eginen direla hiri garraiorako.
Taxiaren zerbitzu horien harira, Martín jaunak adierazi zuen gaia landu beharko dela kasuan kasuko hitzarmenak sinatzeko, hori baita konponbide bakarra eremu batzuetarako.
- **Lanbide Heziketaren Nafarroako Kontseilua. (2019/05/08).** Zenbait foru dekreturen txostenak egin ziren, eta, hori dela eta, lanbide heziketarako titulu berri batzuk ezarri ziren; halaber, Lanbide Heziketarako Plan Estrategikoaren gauzapean txostenaren berri eman zen, eta Accionak akreditazio deialdi berariazkorako aurkeztutako eskaera onetsi zen aztertua izateko.
- **Nafarroako Lurralde Politikarako Gizarte Kontseilua. (2019/05/10).** 2018ko memoriaren berri eman zen, baita Lursarearen 2019ko Ekintza Planaren berri ere. Hitzarmen proposamen bat onetsi zen, Nafarroako Gobernuari eskatzen diona Nafarroako Lurralde Estrategia berraztertzeko; izan

ere, 14 urte baino gehiago iragan dira hura onetsi zenetik, eta, tarte horretan, aldaketa handiak izan dira gizarte-ekonomian, eta irizpide berria sortu dira, lurraldearen kudeaketa zuzendu behar dutenak.

- **Lurraldea Antolatzeko Batzordea. (2019/05/10).** Txostena egin zitzaizen parke eolikoak paratzeko zenbait proiektu sektoriali.
- **Nafarroako Ingurumen Kontseilua.** Uraren ziklo integralaren plan zuzentzaileari txostena egin zitzaion.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA. Larrialdiko laguntza

NUKFren 2019ko aurrekontuan, 10.000 euroko partida bat aurreikusten da larrialdi laguntzarako, garapen lankidetzaren esparruaren barnean.

Oraingoz, eskaerak egin dira bi larrialdi egoeratarako:

1. Hortz klinika mugigarria finantzatzea, errefuxiatu eta etorkinentzat, Greziako uharteetan. GKE eskatzailea Salvamento Marítimo Humanitario da, eta “Aita Mari, 2019” proiektua aurkeztu du. Arrainontzi moldatua da eta egun Lesbosen dago, konponketa batzuk egin behar baitizkiote. Bertan, hortz klinika bat paratu gogo da, arreta emateko.
Proposatuta da 2.500 euroko dirulaguntza ematea, klinika funtzionamenduan hasten denean.
2. Lehengoratzeko lanak eta larrialdiko arreta Mozambiken Idai zikloiak egindako kalteengatik. Eskuldean aritzen diren GKE batzuek eskatu dute laguntza: Medicos del Mundo, Gurutze Gorria, Intermon Oxfam eta Unicef. Laguntza eskatu dute edateko ura eta elikagaiak banatzeko, komunak paratzeko, sendagaiak banatzeko eta osasun arreta emateko, kanpalekuak martxan jartzeko edo oinarritzko azpiegiturak lehengoratzeko.
Proposatuta da 1.000 euro ematea GKE bakoitzari.
3. NUKFren aurrekontuan jasotako gainerako zenbatekoa (3.500 euro) gordeko da urteko bigarren seihilekorako.

ERABAKI DA:

Onestea zuzkidura erabiltzea larrialdiko laguntzarako: 6.500 euro adierazitako eskaeratarako, proposatu

den bezala, eta gainerako 3.500 euro gordetzea bigarren seihilekorako.

4. PUNTUA. NUKFren ildo estrategikoak

Presidenteak azaldu du zer lan eta jarduketa egin den NUKFren ildo estrategikoak direla eta. Oroitarazi du legegintzaldi honetako helburuetako bat zela, baina atzeratu behar izan dela toki entitateen administrazioa berrantolatzeko foru legearen prozesua bukatu arte.

Azaldu da bi bilera egin dituela helburu horretarako eratu zen lan-taldeak.

Idazkari nagusiak azaldu du gai horretan aurreratu dena bilduta dagoela deialdiarekin batera igorri diren agirietan.

Alde batetik, diagnostikoaren agiria dago, honako hau dakartzana: erakundearen eta oraingo lanaren azterlana, beste lurralde federazioekin konparatzen duen agiria, lan bilkura bat kontzejuen taldearekin eta zenbait elkarrizketa eragile kualifikatuekin, zeinek jakinarazi baitigute zer irizten duten eta nola baloratzen duten entitatea.

Bestalde, plan estrategikoa prestatzeko prozesuan landu beharreko gaiak zehazten dituen dokumentua, honako hau dakarrena: kronograma bat eta parte hartzeko prozesu baten proposamena, zeina toki entitateen mapa berrantolatzeko prozesuan bezalakoa baita.

ERABAKI DA:

Oniritzia ematea NUKFren plan estrategikoa dela-eta eginiko jarduketei eta horren berri ematea Batzorde Betearazle berriari, horrek lanarekin jarrai dezan eta martxan jar dezan parte hartzeko prozesua.

5. PUNTUA. - Eskubide Sozialetako Departamentuaren, NUPen eta NUKFren arteko hitzarmena ikastaro bat egiteko.

Proposatu da lankidetzaz hitzarmen berri bat sinatzea Eskubide Sozialetako Departamentuarekin eta NUPekin, aurrekoetan izenpetutako hitzarmenak bezalatsukoa, gizarte zerbitzuen langileei zuzendutako ikastaro bat egiteko, kasu honetan, harrerarako eta gizarte orientaziorako programari buruz.

NUKFk, bere ekarpenerako, langile teknikoak eskainiko ditu ikastaroaren irakasle gisa, eta ekimena zabalduko du toki entitateen artean, toki entitateetako teknikariei zuzenduta baitago prestakuntza ekintza.

ERABAKI DA

Deialdiarekin batera igorritako hitzarmena onestea eta gaitasuna ematea presidenteari sina dezan.

6. PUNTUA.- Legegintzaldiaren balantzea

Nola Batzorde Betearazlearen azken bilkura den heldu den maiatzaren 26ko udal hauteskundeak egin baino lehen, eta, horregatik, oraingo Batzorde Betearazleko kide guztiak dituen azkena ere bai, presidentek komenigarritzat jo du legegintzaldiaren balantze bat egitea, egin diren jarduketa nagusiak errebasatuz.

Lehendabizi, nabarmendu du NUKFk lan handia egin duela lau urte hauetan.

Bereziki aipatu du toki entitateen maparen berrantolaketa egin den parte hartzeko prozesua. Horren barnean, martxan jarri dira berariazko taldeak, bilerak egin dira eskualdeetan, dokumentuak prestatu dira eta, bukatzeko, balorazio agiria egin zen, bide eman ziona Batzordeari horren gaineko iritzia emateko.

Beste lan-talde batzuk jarri dira martxan: 0-3 urte bitartekoa, musika eskolena, kontzejuena, ondare immatrikulatua, plan estrategikoa... zeinek sustatu baitute hautetsien partaidetza proposamenak egiteko orduan oso garrantzitsuak izan diren gaietan.

Lan handia egin da, halaber, herritarren partaidetzan eta gardentasunean, berdintasunean eta administrazio elektronikoa. Ugariak izan dira izenpetutako hitzarmenak: ANIMSArekin, udal inbentarioak martxan jartzeko, La Caixarekin, NUPekin, Berdintasunerako Institutuarekin, Ogasunarekin, etab. NUKFk parte-hartze handia izan du, orobat, legegintzaldian tramitatu diren foru legeak, dekretuak eta aginduak prestatzerakoan. Zehazki, 20 foru legeri, 20 foru dekreturi eta zenbait foru aginduri egin zaie txostena, landu ondoren, Toki Araubideko Foru Batzordean.

NUKFren partaidetza nabarmentzekoa da, orobat, 2009-2012 Inbertsio Planaren itxieran eta 2017-2019 Inbertsio Plan berriaren onespenean, Transferentzia Funtsean, Gardentasunari buruzko Legean, Berdintasunari buruzkoan, Eskubide Kulturalari buruzkoan, Herritarren Partaidetzari buruzkoan, Irisgarritasunari buruzkoan, Eskubide Kulturalari buruzkoan edo Foru Komunitatearen berezko hizkuntzei buruzko foru dekretuan, erabilera publikoko igerilekuei buruzkoan, 0-3 urteko zikloari buruzkoan, etab.

Beste gai hauei ere arreta berezia jarri zaie: hauteskunde elkarten arazoa eta hauteskunde gastua gainditzeagatik irekitako zehapen espedienteak. Aditzera eman du lanean jarraituko duela Federazioak indarreko araudiko aldaketaren tramitazioa sustatzeko. Bestalde, parte-hartze handia izan da NUKFk

ordezkaritza duen 60 kontseilu eta batzordeetan baino gehiagotan. Langileriaren egiturari dagokionez, euskararen itzultzaile-teknikaria kontratatu dugu.

Bukatzeko, Batzorde Betearazleko kide guztiei eskertu die egindako lana eta azken lau urte hauetan erakutsi duten prestutasuna eta lankidetzeta. Nolanahi ere, oraindik lan asko dago egiteko, batetik, toki administrazioa berrantolatzeke legea martxan jartzea (eskualdeena), eta, bestetik, NUKFren Plan Estrategikoa prestatzea.

Eskerrak eman dizkie, halaber, NUKFko langileei, legegintzaldi osoan egin duten lanagatik.

ERABAKI DA

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

7. PUNTUA.- Presidentearen informazioa

- Polizia lanpostuen balorazioa aztertzea eskatu zaiola TALENTIS enpresari, 4.500 euroren truke, BEZa kanpo.
- Laguntza kontratu bat esleitu zaiola EGUALA enpresari, toki entitateei aholkularitza emateko berdintasunaren arloan, Berdintasunerako Institutuarekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz. Urte bukaerara arte emanen da zerbitzua. Kontratua 14.000 eurokoa da, BEZa kanpo.
- Bilkura bat egin dela Kudeatzaile Administratiboen Elkargoarekin, zirkulazio zergaren ordainketa dela eta.
- NUKFk jarduketak egin asmo dituela udalbatza berrien eraketa dela eta: jarraibideak igortzea, ikastaro bat antolatzea ekaineko bigarren hamabostaldian udalkide berrientzat (Iruñean, Tuteran eta Lizarran).
- Bilkura bat egin duela ibilgailu elektrikoaren lan-taldeak.
SODENAn lan-talde bat eratu da ibilgailu elektrikoaren erabilera sustatzeko administrazio publikoetan. Honako hauek hartu dute parte: Nafarroako Gobernua, CEPEN, Iruñerriko Mankomunitatea, Iruñeko Udala eta NUKF. Proiektua NAVEAC deitzen da. Joan den maiatzaren 8an, SODENak prestatutako aplikazio bat aurkeztu zen, ibilgailu elektrikoak eta ibilgailu arruntak konparatzen dituen, aukerarik onena hautatzeko erosteko orduan. Halaber, jakinarazi zen laguntzen deialdi bat argitaratuko dela hemendik gutxira.
NUKFn daude aplikazio horren gaineko informazioa eta horren funtzionamendua azaltzeko kontaktuak.

Aurreikusita dago informazio jardunaldi bat antolatzea uda pasa ondoren ibilgailu elektrikoa toki administrazioan erabiltzeari buruz.

- Laguntzen deialdia egin dela eraginkortasun energetikoaren proiektuetarako.
Heldu diren egunetan, laguntzen deialdi batzuk argitaratuko dira NAO-n, toki entitateek eskatzeko modukoak, energiaren eraginkortasunerako proiektuetarako. Heldu den apirilaren 25ean informazio bilkura ba tegin zen, eta garapenerako partzuergoek ere parte hartu zuten horretan. Hurrengo egunetan eskualdeetako informazio bilkurak deituko dira. NUKFren webgunean emanen da horien berri. Deialdien zirriborroak eskura daude. Iazkoak bezalatsukoak dira, baina ez zaie zabalpenik egin behin betiko idazketa egiaztatu arte.
- 1234/2018 Errege Dekretua dela-eta eginiko jarduketak.
Nafarroako Enplegu Zerbitzua eta NASUVINSA lanean ari dira, NUKFrekin batera, prozedura bat diseinatzeko toki entitateek ekintzailetzarako laguntzak eska ditzaten populazio txikiena duten landa eremuetarako. Nafarroan, 5.000 biztanletik beherako udalerriak dira horiek, baldin eta Iruñeko hiri eremuan ez badaude kokaturik. Hilaren 14an bilkura bat egingen da diseinu lanak hasteko. Espero da NASUVINSAk bere gain hartzea proiektuaren kudeketa administratiboa.
- NUKFren Prestakuntza Jarraituaren Plana.
Hilaren 14an Prestakuntzaren Batzorde Paritarioa bilduko da Toki Administrazioan txostena egiteko NUKFk aurkeztutako planari. Laguntza baimentzen duen ebazpena emandakoan has daitezke ikastaroak. Horrekin lortu gogo da ekainetik aurrera gauzatzen hastea plana.
- Toki Araubideko Foru Batzordearen hurrengo bilkuran txostena egingen zaiola Gizarte zerbitzuak finantzatzeko Foru Dekretuari.

ERABAKI DA

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

8. PUNTUA.- Galde-eskeak

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko eguerdiko 14:00ak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA, IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.